

## "ENTRENAMENDU-FASEA OSO POSITIBOA IZAN DA GURE PARTAIDETZA ONDO PRESTATZEKO"



**Kosmodisea 2008-2009 | Ikono Planeta | DBH  
Aitor Madrazo (San Benito Ikastola)**

*"Puntuazio bikain honek jarraitzeko indarrak eman dizkie ikasleei", azaltzen du San Benito Ikastolako Aitor Madrazok berak zuzentzen duen neska-mutil taldeak Ikono Planetan lortu dituen emaitza onen inguruan. Talde honen lana honakoa izan da: ondasun komunaren kudeaketan biztanleriaren partaidetza hobetzeko proposamena Interneten bidez hedatzen duen buletinaren argitalpena. Tutorearen hitzetan, ez*

dituzte zailtasun handirik izan eta entrenamendua "*oso ondo etorri zaigu*" egindako aldaketak aztertzeko.

Kosmodiseako Ikono Planetan parte hartzearen alderdirik zailena azaltzeko, Aitor Madrazok dio zenbaitetan "*programa bertan behera gelditu zaigu eta wikian lan garrantzitsua egin eta gero, ez zaigu gorde*".

**- Nola ekingo diozue Kosmodisea 2008-2009ko azken etapari?**

- *Gure ahalegin guztia jarriko dugu irabazteko eta bideo interesgarri eta entretenigarriak egiten saiatuko gara.*